

Hiru izango dira gure merkatua segmentatzeko irizpideak: Adina, bizilekua eta baloreak, hain zuzen ere.

Adinari erreparaturaz, zortzi eta hamalau urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo gara. Guretzat adin tarte hau oso garrantzitsua da, tarte honetan eskuratzen baitira gehien bat hizkuntza, kultur eta mitologia baloreak. Gero eta nagusiagoak izan, gero eta zailagoa izango da gauza guzti hauek barneratu eta erabiltzea.

Bizilekuari dagokionez, Bilbon kokatuko gara, alde batetik adinari kontuan hartuz, beste leku batzuetan baino gazte gehiago daudelako, beraz guretzat bezero potentzial asko daude bertan. Beste alde batetik, Bilbo Euskal Herriko hiririk handiena izanik, gazte kopuru altuena duen hiriburua delako.

Eustaten begiraturaz gazte kopuruaren portzentaia beste leku batzuekin konparaturaz handiena dela nabaritu dugu.

	C.A. de Euskadi			Bizkaia		
	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres
Total	2.163.121	1.048.553	1.114.568	1.129.192	542.797	586.395
Euskaldunes	936.812	452.882	483.930	428.360	205.585	222.775
Alfabetizados	798.564	385.531	413.033	368.561	176.357	192.204
Parcialmente alfabetizados	84.400	40.623	43.777	35.199	16.945	18.254
No alfabetizados	53.848	26.728	27.120	24.600	12.283	12.317
Cuasi euskaldunes	412.996	207.432	205.564	222.341	111.278	111.063
Alfabetizados	248.853	124.633	124.220	138.109	69.006	69.103
No alfabetizados	85.168	42.630	42.538	44.111	22.037	22.074
Pasivos	78.975	40.169	38.806	40.121	20.235	19.886
Erdaldunes	813.313	388.239	425.074	478.491	225.934	252.557
Euskera	282.338	136.083	146.255	95.028	45.222	49.806
Euskaldunes	282.303	136.070	146.233	95.027	45.221	49.806
Alfabetizados	236.713	114.119	122.594	78.030	36.916	41.114
Parcialmente alfabetizados	28.908	13.748	15.160	10.422	5.031	5.391
No alfabetizados	16.682	8.203	8.479	6.575	3.274	3.301
Cuasi euskaldunes	35	13	22			
Alfabetizados	35	13	22	1	1	0
No alfabetizados				1	1	0
Pasivos						
Erdaldunes						

Horrez gain, hiri honetako %3,5ak besterik ez dute euskaraz hitz egiten (Eitb-ko datuen arabera) , beraz, arazo hori konpontzeko Bilbo leku aproposena iruditzen zaigu. Euskara dakitenen gehiengoa gazteak direla ere ohartu gara, beraz euskarazko zerbitzua eskaintzen duen aisialdi talde batean interesa izan dezakete.

Bilbon egingo dugunez, Bilbo Handitik kanpo bizi diren haurrek (Busturialdea, Durangaldea, Enkarterriak, Arratia, Lea-Artibai, hau da beheko argazkiko eremu horitik kanpo daudenak)

zailtasun handiagoak izango dituzte izena ematerako orduan, eta beraz, interes gutxiago ere.

Baina inguruko herri askok ere interesa izan dezakete proiektu honetan, beti ere Bilbotik hurbil daudenak, hau da, Sondika, Alonsotegi, Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Zamudio, Barakaldo, Erandio, Derio, Zaratamo, Loiu, Larrabetzu... izan daitezke(beti ere familiaren eskuragarritasunaren arabera eta haurren ordutegiarena ere bai).



Bilbo inguruko herriak (gure zerbitzura apuntatzeko aukera gehien dutenak) mapa baten horiz irudikatuta.

Azkenik, **familien baloreak** kontutan hartuz, gure printzipioekin bat egiten duten familiengana joko dugu, hau da, euskal kultura, mitologia eta hizkuntza hedatzearekiko interesa duen jendearengana jo beharko dugu.

Hauek ikastetxe euskaldunetan eta D ereduan dauden ikasleak izango dira. Honetarako zentroetan hitzaldiak emango ditugu bertako gurasoak informatuz eta interesa izanez gero haurrak gure aisialdi taldean izena emateko.

Laburbilduz:

Gure bezero segmentuak hiru izango dira.

1. Adina, 8 eta 14 urte bitartekoak.
2. Euskal kultura indartu nahi dutenak.
3. Bilbo Handian bizi direnak.